



# KOLOREZKO HIRU MAKLATXO ETA PAULO DEPRESORE JAUNA

Jatorrizko ideia eta testuak

Ana M<sup>a</sup> García de Motiloa Gámiz

Irudiak

Raquel Gonzalo García de Motiloa

Diseinu eta kolorea

Maialen Gonzalo García de Motiloa

Paulo depresore izeneko irakasle bat ageri da istorio honetan. Ospitalean dagoen ikastetxe bateko zuzendaria da. Ikastetxe horretan ikasten dute makilatxo depresoreek, mental zuridun medikuari eztarria hobeto begiratzen laguntzen dioten horiek, alegia.

Garaia eta argala da Paulo Jauna,

eta erdian egiten du artesia,

orrazi luze batekin.

Bi puntu dirudite haren begiek,

eta elkarrengandik nahiko hurbil daude;

bekainak, berriz, elkarrengandik oso aparte,

haserre baleude bezala;

sudurrak, berriz, uhartetxo bat dirudi,


bibote-olatuz inguratua;

txiki-txikia du ahoa,

pipita baten tankerakoa.

Tirantedun prakak daramatza,

antzinako jendeak bezala.



Asko gustatzen zaio bere lana Paulo jaunari: hezibide onekoak izaten irakasten die makilatxoei.

Ikasturtearen hasieran, hau esan ohi die:

Makilatxo txintxoak zarete,  
eta lagundu egiten diozue medikuari

ahoa egiratzen,  
minik ba ote dagoen.

Bada bestelako makilarik ere,

"poloak" izenekoak,  
eta hurrei saritzat

izozki gozo-gozoak  
ahoratzen dizkiete

soilduta daudenean.

Badira laranjazkoak,

badira limoizkoak,

badira marrubizkoak eta mendazkoak,

baita meloizkoak ere.

Kanpotik desberdinak,

barrutik berdinak,

makilatxoak eta poloak,

biok gara oso atseginak;

laguntzea gustatzen zaigu,

lan egin arren

beste nonbait.

Jakin ezazue,


makilatxo maiteok,

zein garrantzitsua den

EMAN aditza,

beste hitz batekin esanda

ESKUZABALTASUNA deritza.



Paulo jaunak poloei buruz esan duena entzun ondoren, ospitaleko kafetegira joatea erabaki dute, halako batean, hiru makilatxok (Romu, Remo, eta Erramun). Lagunak dira hirurak, eta oso bihurriak.

Kolore deigarriko arropak janztea gustatzen zaie gure lagun makilatxoei: Romuri horia gustatzen zaio; Remori, morea, eta Erramuni, urdinxka. Hirurek daramate mantala, ikastetxean baitaude, baita gorbata ere. Prakak ere berdintsuak dituzte; arrastoen formak bakarrik bereizten ditu: Romurenak, zuzenak dira; Remorenak, izurtuak, eta Erramunenak, etenak.

Oso bihurria da Romu, eta ia beti eraman ohi ditu tiritak aurpegian; batzuetan, plater bat hautsi duelako, eta beste batzuetan, berriz, katuren batek atzamar egin diolako. Ahateen atzetik korrika ibiltzea ere gustatzen zaio.

Remo, aldiz, lasaiagoa da; berbereen ohiturak ikertzea du gogoko, eta eskolako lan guztiak egiten ditu. Bi txanpon dirudite haren betaurrekoek, gurpilak bezain biribilak.


Hiru makilatxoetatik, Erramun da jatunena. Pastelak gustatzen zaizkio, baita bizkotxoak ere (asko, gainera; lehengo batean, zortzi jan zituen. Bederatzigarrena ez zuen jan, tripako mina zeukan eta). Dezente orin du aurpegian, bere lehengusu Rebekak bezala.

Oso kuxkuxeroak dira Romu, Remo eta Erramun, eta makilatxo eta guzti ikusi nahi dituzte poloak.

Bat-batean, kutxa handi batekin egin dute topo. Hona hemen zer dioen, melodia baten antzera, kutxaren kanpoaldeko esaldiak: "Polo batek eguna alaituko dizu".

Ireki dute atea eta... aho zabalik geratu dira barrukoa ikusi dutenean.

## KAFETEGIA



Polo urdinak eta laranja-kolorekoak, marroiak eta horiak, denak ari dira kantari, zorientsu, ehun kilker gisara.

Harrituta begiratu diete makilatxo depresoreek, ez baitute inoiz ikusi kapeladun makilatxorik.


-Poloak gara -esan diete-; makilak gara, eta ez dugu ile bakar bat ere. Hurrei izugarri gustatzen zaie gure kapela jatea.

Batera erantzun dute Romuk, Remok eta Erramunek:

-Makilak gara, ez poloak; guk ere ez daukagu ilerik, baina, handitzen garenean, hazi egiten zaigu. Ahoa zabalik edukitzen laguntzen diegu umeei, medikuak linternarekin gertutik azter ditzan. Gehienetan, asmatu egiten du medikuak zer gaitz duten umeeak.

-Zatozte barrura -gonbidatu dituzte poloek-. Makilatxoak, poz-pozik, salto batean sartu dira lagunuen etxera. Hotza da etxea, gauzez nahiz egunez.

Beren etxeei eta gorabeherei buruz hitz egiten jarraitu dute barruan; bat-batean, zarata handi bat entzun dute, eta gaztelu bateko atzetzar bat balitz bezala itxi da kutzako atea.



Dardarka hasi dira Romu, Remo eta Erramun; hasieran, hotzagatik eta, ondoren, beldurragatik. Orduan, poloek (lagunak, jada)

makilatxoei laguntzea erabaki dute. Izan ere, antzina, poloak ere dardarka ibiliak ziren.

Hona hemen zer esan zuen barrutik tomatea bezain gorria zen txokolatzeko polo batek:

-Entzun ondo, Rumo, Rome eta Erroman...

-Ez direla horrela deitzen! —esan zuen erregalitzeko polo batek.

-Zer axola dio, baina? Ulertu didate, ezta?-. Eta, ondoren, honela mintzatu zaie txokolatzeko eta tomatezko poloa:

-Esan ozenki, nirekin batera: BELDUUUUUUURA.

Akordeioa balira bezala erantzun dute Romuk, Remok eta Erramunek: BELDUUUUUUUUUUUUUURRA.

Panpina balitz bezala erantzun die oihartzunak:

AAAAAAAAAAAAAAAAAAAA.

-Uuii! Nor dabil hor? -galde du hiru makilatxoek.

-Ez dabil inor. Egin kasu niri, honetaz asko dakit eta -esan die polo sudurmotz antzeko batek.

Eta honela jarraitu du:

-Orain, izena jarriko diogu beldurrari, zeinak, niri behintzat, bost axola.

-Alfredo jarriko diogu -esan dute hiru makilatxoek.

-Koloreren bat margotuko al diogu?

-Zuria, kanforra bezala -dio Erramunek.

-Zer zapore ote du beldurrak?

-Arabisagarrarena -dio Remok.


-Zer usain ote du Alfredotxok?

-Ezkaiarena, segur aski, -erantzun dio Remok, zeinari Remotxo ere deitzen dioten.

-Eta ukituko bagenu?

-Konforme; ukitu egingo dugu. Uki dezagun -dite hirurek-. Non dago?

-Duela dezente joan da -erantzun du polotxo sudurmotzak.



Une horretantxe ohartu dira Romu, Remo eta Erramun beldurra ez dagoela jada han.

-Zer ondo nagoen orain, beldurra neuk asmatua zela jakinda! -dio Remok, irribarretsu, hortzak karraskatu gabe jada.

-Nola aterako gara hemendik? -galdetu du Romuk, izoztuta geratzen ari dela ohartzean.

-Nik badakit -dio limoizko polo orojakin batek.


-Leihotxo horretara ematen duen txirrista horretatik atera zaitezket. Irteteko, txanpon bat eman behar zaio leihoari.

Baina nik badakit amarru bat...

Orduan, limoizko poloak leihoa ireki du, botoi bat sakatuta.

Handik atera dira hiru laguntxoak, txirristatik behera, batere oihurik egin gabe. Honela mintzatu zaizkie gainerako poloei:

-Eskerrik asko, polo atseginok! Gogoan izango zaituztegu beldurra itzultzen denean.



Etxera itzultzean, gurasoak oso kezkatuta ikusi dituzte Romuk, Remok eta Erramunek. Izan ere, berandu etxeratu dira makilatxoak.

-Non egon zarete? -galdetu diete gurasoek.

-Leku izoztu batean, han, giltzapetuta -erantzun dute makilatxoek, urduri antzean.

-Baina, nola liteke hori -galdetu diete amek-, udan gaude eta?


-Atxis, atxos, atxus! -erantzun dute Romuk, Remok eta Erramunek, lehoiarenak diruditen doministikuekin.

Burkoak mukiz bustiz eta aireari ostikoka eman zuten gau zalapartatsu hura makilatxoek.

Biharamunean, makilatxoak eztulka ari zirela eta gorri-gorri zeudela ikusirik, Faustino jaunari (otorrino ospetsua) deitu zioten amatxoek.

Eztarria, belarriak eta sudurra begiratu dizkie Faustino jaunak, eta, serio asko, honela mintzatu zaie:

-Romuk laringitisa dauka; Remok, errinitisa, eta Erramunek, otitisa eta, gainera, apendizitisa. Hiru egun eman behar dituzte ohean, eta xarabe bat hartu behar dute; Erramuni, gainera, ebakuntza ere egin behar zaio.





Egun hartan bertan egin zioten ebakuntza Erramuni. Arina izan zen, apendizea deritzon kordioaren zatitxo bat besterik ez baitzioten kendu (zenbaitek dioenez, ez du ezertarako balio apendizek).

Apendizitisa ez ezik, beldurritisa ere bazeukan Erramunek, baina orduan gogoratu zuen kutxako makilatxoek erakutsi ziotena.


Zerura igotzen diren globo horietako batean sartu zuen beldurra, eta nola alde egiten zuen ikusten geratu zen, lasai asko.

Ebakuntza ondoren, esnatzean, gela batera eraman zuten Erramun. Hango leihotik begiratu zuen, eta ez zuen jada globoa ikusi; bai, ordea, hegaka zoriontsu zebilen kometa bat.

Gertutik begiratzean, kometa makilatxo askoz egina zela ikusi zuen, eta borlaz apainduta zegoela. Makilatxoek, bada, hegan egin ahal zuten, eta hurrekin jolastu, poz-pezik eta elkarrekin.

Hurrengo goizean, bisitari joan zitzaion Erramuni Paulo Depresore jauna, eta liburu hau eraman zion opari:

"Kolorezko hiru makilatxo eta Paulo Depresore jauna"





# AMAIERA

J.I.E. VI-148-2011